



## “La Perla Negra”

Igonek bidaiatzea du gustuko. Aske sentitzea. Eskarmentu handiko bidaiaria da, eta lanbide bihurtzeko puntura heldu da. Horregatik, non bere zangoa, han bere etxea sumatzen zuen faltan.


Furgoneta bat erosteko aukera izan zuenean, ez zuen bi aldiz pentsatu. Ez zen, ordea, fabrikatik ekipaturik datozen horietakoa, Euskal Herriko bazter guztiak, krisiak krisi, zipriztintzen dituzten California, Vito eta tankerakoa. Igonek erosi zuen Ford Transit hura bete beharreko oihala zen.

Ezagun baten bitartez, furgoneta ekipatzeko lanari ekin zion. Argi zuen araudi, legedi oro bete nahi zuela. Instalatu nahi zuen sukaldeak gasen irteera zehatza behar zuen, homologazioa jasotzeko. Hilabete batzuen ondoren, Ford Transit hura “La Perla Negra” moduan bataiatu eta munduko asfaltozko itsasoak zeharkatzera ekin zion Igonek.


Espazioaren aprobeixamendu naturala lortu nahi izan zen, eta arkitektoek sarri aldarrikaturiko zenbait lanabes hartu eskura; jangelatik egongelara igarotzen den lekua, gerora logela bihurtuko dena, edo altzari mugikorrak, besteak beste.

Etxea krisian aztertu nahi izan dugun zenbaki honetan, artikulua erdi brometan egitea pentsatu bagenuen ere, batek baino gehiago pentsatuko du, planoak ikusi eta gero: “Igone, hi etxerako!”.

*\* Ibai Gandiaga arkitektoa da.*



Ibai Gandiaga °



### ESPAZIOEN ESKEMA

- A Igonek arropak
- B Gonbidatuen arropak, garbitasun-produktuak, liburuak, aisialdia..
- C Hozgailua
- D Garbiketara-produktuak
- E Janaria
- F Sukaldeko tresneria
- G Mahai-tresnak
- H Gas-bonbona
- I Edredoiak, mantak
- J Maletategia, ur-depositoa